

## **BEDIAGA'KO SAN BIXENTE**

“Antigüedades de Vizcaya”ren bigarren atalekoak baiño oraintsuagoko jakingarriak daukoguz, 1793n.urtean Juan Iturriza Zabala'k batuak:

”Amorebieta'ko San Bizente'ren baseleizan iru edo lau illobi euren arrilobiakaz egozan orain 40 urtera arte eta 1783n.urtean illobi bat estalki barik dago eta beste bat estalkiagaz Bediaga Barrena etxean”.

\* \* \*

Pillokari beronek diñosku 1785n.urteko esku-idazkian zenbat baseleiza ziran Amorebieta'ko Eleizaldean eta beste gauza batzun artean au diño:

“Amorebieta'ko Eleizaldean 13 baseleiza dagoz eta santu onei eskiñiak dira: San Luzia'ri, Ofrendo'koa San Juan'eri, Larrineta'koa San Pedro'ri, au 1668n.urtean barriztaua, Gumuzio'ko Santuari, Pardo'koa San Urbano'ri, Izerango'koa Santa Krutz'eri, Dudea'koa San Migel'eri, Ibarra'koa San Lorentzo'ri, Elgezabal'goa San Antonio'ri, Arano'koa San Martin'eri, Bediaga'koa San Bizente'ri. Emen egozan illobi batzutatik bat geratu da, Austoa'koa Santa Krutz'eri eta Sarasua'koa San Pedro'ri...”

\* \* \*

Oartu geinken lez 1612n.urtean izan ziran 16'retatik 1785n.'ean 13 geratzen dira. Sinismena galtzen joialako ete zan? Nok jakin!



*Bediaga'ko Bixente deuna (zornotza'n)*

Arrezkero, 1793'ko orrillaren l'ean Agiriano ta Gomez'tar Frantzisko jaunak gotzain-ikustaldi baten egin-dako auzi-papelean dagon ondorengo autormenean dator jakingarri au: “San Bixete izeneko baseleiza begiztatu dot; altarean ez dot aurkitu kurutzerik; beste dana egoki ta itxuraz dago”.

1847'ko beste ikustaldi baten agirian argibide au dakar: “Dudea'ko Anaidiaren baseleizak ikusi dira, eta guztiak dagoz egoera onean; San Lorentzo'koari arri bat barriztu bear jako”.

\* \* \*

J. E. Delmas'ek “Bizkaia Jaunerrian Bide-erakusle” idaztian ondorengo au diño: “Amorebieta Eleizalde zaba-lean bananduta baseleiza pillo bat dago eta euretatik bi edo iru guztiz antxiñakoak, onein artean Bediaga'ko San Bizente. Emen oraintsura arte illobi asko izan dira. Zer esan gura dau “illobi asko izan zirala” esateaz?... Izan leiteke 1593-94n.urtean alderdi oneik igaro eben kolera izurriagaitik eriotza asko izan zirala eta ondoren lez arrizko illobiak ipiñi-bearra. 1375 urteko agerbideak orixe ager-tzen dabe.

\* \* \*

Orain Dudea'ko Anaidia'n zutunik daukaguzan baseleizak oneik dira: San Bizente, barriztuta, San Miguel, San Pedro, San Antonio, San Lorentzo, San Martin eta Santa Krutz.

Amaitzeko, San Bizente baseleiza maitearen barri bat emon bear dogu: Gurtuten dan Bizente Martiri deunaren irudia karlisten azken-gudatik onakoa da; lengoa, auzo-koak diñoenez erre egin zan, gudaldian ain zuzen eleiz-pean sua emonda eta besoa baiño ez da onik urten sutatik.

EGILUZE'n

**SODUPE TA ARDANTZA  
BILLATZAILLE TA BILLATUAK  
BION ARTEAN ETA BOK BATERA  
EGINGO DABE EUZKADI ZORIONTSUA  
LAGUNDU AZ GURE EUSKALKI  
EDER GAISO BIZKAIERARIN**

(Letona'k)